



Programa honen aurreko ataletan aipatzen diren politikak eta ekimenak, kasu askotan, auzoetan gauzatzen dira, bai azpiegiturak eta baita komunitatea indartzeko eta kohesionatzeko proposatutako ekinbideak ere. **Gizarte kohesioaz eta komunitatea saretzeaz hitz egiten dugunean, auzoak dira oinarritzko unitatea, kokalekua.** Bertan, topo egiten baitute azpiegitura eta baliabideek, bertan elkartzen baitira hainbat eragile (bizilagunak, erakunde publiko eta pribatuak, hirugarren sektorea, elkarteak...).

“Donostia Lagunkoia” Plana hiriko auzoetan garatzen ari da eta hiriko auzoetan hezurmamitzen dira 5.2 atalean, herritarron partaidetzan, azaldutakoak ere.

EAJ-k argi dauka auzoetako azpiegituren garrantzia, baina, honez gain, datorren legealdirako derrigorrezkoa ikusten dugu Donostiako auzo bakoitzeko **Plan Integrala egitea: auzoaren diagnostiko orokorra egin eta, horren ondorioz, erabakiak egokiago hartu.** Legealdi honetan burutu den Parte Zaharreko Partaidetzazko Lehenengo Kudeaketa Plan Integrallean egin den moduan.

Auzoak dira, halaber, Donostia Euskararen Hiria izan dadin gertueneko guneak. Garrantzi handia izan dute Egiak, Añorgak, Altzak edo Intxaurrendok Euskaraz bizi egitasmoan. Eta garrantzi handia izan dute Euskaraldian. **Euskara batzordeak dira auzo bakoitzeko agente nagusiak euskarari dagokionez.** Orain arte batzorde horiek sustatzeko ahalegina egin du Donostiako Udalak, eta hala egingo du hurrengo lau urteetan ere. Beste zenbait egitasmok ere, hala nola Merkataritzan eta Ostalaritzan euskaraz ahaleginak, eragin nabarmena du auzoak euskaraz bizi daitezen. Merkataritza eta Ostalaritza Elkartekin eskuz esku, egitasmo horrek aurrera egiten duen neurrian, aukera emango die auzoei euskaraz egiteko guneak irabazteko. Auzo bakoitzak bere Plan Integrala garatzen duenean, egitasmo hauek guztiak hartu beharko ditu kontuan eta euskara zehar-lerro gisa barneratu.


Bestalde, **auzoetan garatuko diren proiektu eta ekimenetarako ideiak partekatuko dira.** Guztion artean berdintasuna kontuan hartuta erantzukizun eraginkor eta askotarikoak lortzeko. Erabakiak hartzeko modu berriak kontuan izango ditugu, erronkei aurre egiteko eta egungo eta etorkizuneko hiria guztion artean lantzeko.

AIETE

Aiete auzo zabala eta biztanle-dentsitate txikikoa da, zenbait hirigune eduki arren erreferentzia-guneak eraikitzen eta sortzen ari dena; horietan ari da auzo bizitza dinamizatzen.

Hauek dira EAJ-PNVk auzoari eskaintzen dizkion proposamenak datorren legealdirako:

- Aieteko Osasun Zentro berria martxan jarri.
- Auzoko garapen demografikoaren eta beharren arabera, bigarren haurreskola egiteko aukera aztertu.
- Aieteko bidegorria amaitu.
- Miramongo Parke Teknologikoan kirolgune bat sortzeko pausuak ahabideratu.
- Aiete Pasealekuko jolastokiaren estalkia egin.
- Miramongo pasealekuan zebra bideak jarri.
- Errondoko espaloiak eraberritu eta garbitu.
- Pagolako sakanguneak gunek gutxitu.
- Hegaztien pasealekutik kantxetara eta merkatal gunera iisteko bideziorra egin.



ALDE ZAHARRA

Hiriko auzorik enblematikoena da. Donostiaren jatorria eta iragana irudikatzen du, baina, aldi berean, gure oraina eta etorkizuna. Funtsezko esparrua da donostiar, gipuzkoar eta bisitari guztientzat aisialdirako jarduerak antolatzeko, eta hainbat ekipamenduren kokalekua. Baina bertan bizi direnentzat honakoa da garrantzitsuena: bizileku eroso izatea, egunerokotasun atsegina garatzeko gune bat.



Hau dena kontuan hartuz, legealdi honetan Parte Zaharreko lehenengo Kudeaketa Plan Integrala abian jarri dugu, auzo-partaidetza kontuan hartuta. Planak auzoaren bilakaera ikuspegi global batetik jasotzen du.

Badakigu asko dagoela egiteko, badakigu plan honen baitan ere hobekuntzak egin behar direla, baina bide onetik abiatu gara dagoeneko.

Hauek dira EAJ-k auzoari eskaintzen dizkion proposamenak datorren legealdirako:

- Planarekin eta bere garapenarekin konpromisoa berretsi nahi du, beti ere egingo dugun urrats bakoitza auzokideekin partekatuz.
- Bretxako proiektua :
 - Osasun Zentroa eta Kirol ekipamenduak kokatu.
 - Azoka kale arrasean jarri eta baserritarrentzako gune berria egokitu.
 - Biltegiratze-plataforma, salgaien zamlanak eta azken milako banaketa- gunea jarri.
 - Plaza egokitu.
- Ekipamendu plana bideratu, eta horretarako, espazioen banaketa berriro antolatu:
 - Gizarte Zerbitzugune berria jarri.
 - Adinekoentzako apartamenduak Kanpandegi kalean.
 - Haurtxokoa eta Gaztelekua.
 - Auzo-elkarterako espazioa egokitu.
 - Konstituzioa Plazako Udaletxe zaharraren eta liburutegiaren eraikinarentzako erabilera berriak abian jarri.

- Orixe Ikastola. Eraikina handitzean, erosotasun handiagoa lortzeaz gain, ikasleen kokapena berrantolatu.
- Orixe Zuloagako ingurua oinezkoentzat bihurtu eta jolas gunea jarri.
- Euskara auzoko Plan Integralean txertatu, zehar-lerro gisa, auzoko jardueretan: merkataritzan, ostalaritzan zein aisialdiko edo kulturako ekitaldietan.
- “Portaviones” eraikinari garrantzia eman eta erabilera berriak abian jarri.
- Kursaal-Bulevard bidegorria lekuz aldatu.
- Mari kalean motoen aparkalekua kentzeko aukera aztertu.



ALTZA

20.000 mila donostiar baino gehiago bizi dira Altzan, zenbait unitatez osaturik dagoen auzo honetan: Herrera, Eskalantegi, Larratxo, Altzagaina, Roteta, Jolastokieta, Arria, Molinao, Oleta eta Buenavista batetik, eta bestetik Auditx Akular, Landarro, Esnabide eta Lauaizeta dira bertako birika berdeak.


Altza beti izan da nortasun handiko auzoa. Baina ingurune honetako garapena ez da beti erraza izan. Dena den, erronkei aurre egitea lortu dugu eta orain gogoz gainezka eta baikor begiratzen diogu etorkizunari. Donostiako gure beste badian, Pasaia Badian, abian diren birgaitze eta biziberritze ekimen eta lanak ere eragin handia izaten ari dira inguru honetan.

Proiektu batzuk gauzatu dira jada, beste batzuk martxan daude, eta Altza etengabe ari da aldatzen.

Hauek dira EAJ-k auzoari eskaintzen dizkion proposamenak datorren legealdirako:

- Donostiako Udaletxetik bultzatutako Ekialdeko Barrutiko Udal Batzordea sendotzen eta indartzen jarraitu, baita herritarren partaidetza ere, auzoaren garapen eta etorkizunean duen garrantziaz jabeturik.
- Altzako Kiroldegi berria egin.
- Merkear eremuan futbol zelaia eta kirolgune berria egin.
- Herreran, Arrobitxuloko parkean, txakurrentzako zonalde bat egokitu.
- Larratxo pasealekuaren eta Lauaizeta kalearen arteko zeharkako igogailua amaitu.
- Altza - Eskalantegi zeharkako igogailua egin.
- Jolastokietako hirigintza-garapena bultzatu.
- Eraikuntzaren institutuan kokatu gazteentzako etxebizitza-eskaintza.
- Auditx Akularren berrazterketa egin HAPO-PGOU berriaren baitan.
- Jolastokietako haur-eskola eraiki.
- Harri Berri ikastolako patioa estali.
- Casa Nao zahar etxeko irisgarritasuna bideratu.
- Txingurriko erreka uraren kalitatea hobetu.
- Herrera pasealekuko ur zikinen sarea berritu.
- Adif-ekin elkarlanean Herrerako irisgarritasuna bermatu.
- Altza-Pasaia tren-lotura bultzatu eta EuskoTrenekin konponbidea landu.

- Oletan irisgarritasuna hobetu, trenbidearen azpiko pasabidea (puntu beltza) egokitu.
- Altza - Larratxoko bidegorria egin.
- Dbizi zerbitzua auzora eraman.
- Jolastokieta II. faseko urbanizazioko baldintzetan igogailua egin.
- Txingurri pasealeku eta Luis Gonzaga plazaren arteko tunela argiztatu.
- Herrera 68 pasealekuan errotonda eta semaforo bidez trafikoa moteldu.
- Herreran, Peruene Berri eta Arrobitxulo tarteko kirol gunea osatu.
- Roteta ingurua hobetu, espaloia zabalduz, eskailerak kenduz, barandilla jarritz.
- Altza gainan Giza eskubideak Oroitzapenak.
- Altza-Herrera-Bidebieten, Historiko Emakumeen irudia errekuperatu. Emakume garbitzaile, emakume pelotari, Kontadores Fabrikako emakumeak.
- Altzan, Casares Kultur etxeko haurren parkea hobetu.
- Txakurrentzat parke itxia egin Altzan.
- Rotetan basketeko kantxak berritu, minibasket kantxak jarriaz.
- Atzako herri-bideen inbentarioa egin, Lau Haizetako Plana osatzeko.
- Altzako frontoia hobetu, aldagela berriak eta hezetasun tratamendua eginez.



AMARA BERRI

Amara Berri Urumea Ibaiaren ertzean zabaldutako auzoa da. Faseka eraikitakoa, 50-60 hamarkadan hiriaren zabalkuntza izan zen. Gaur egun, 30.000 donostiar baino gehiago bizi dira Amara Berrin, zenbait gunetan (Amara Berri, Morlans, Erriberetako Loiola, Anoeta).


Amara Berriko antolakuntza urbanistikoa etxebizitza eremu handiz osaturik dago, barneko plazak ditu, zirkulazio bide handiak, trenbide sarea eta musika eta kirol-ekintzetarako erabiltzen den Anoeta Kirol-hiria. Gainera, hemen kokatzen dira hiri osorako zenbait ekipamendu eta sistema.

Azken urte hauetan gauzatu diren proiektuez gain (plazen berrikuntza, bidegorriaren luzapena, Gizarte Zerbitzuko bulego berriak Morlansen eta Erriberetan, Ferreriaseko eskolan musika eskolaren zerbitzuak edo Udaltzaingoaren egoitza), datozen urteetan beste batzuk landu beharko ditugu, auzoa jasangarriagoa, hobeto konektatua eta bizitzeko erosoa izan dadin.

Hauek dira EAJ-k auzoari eskaintzen dizkion proposamenak datorren legealdirako:

- Donostia Lagunkoia hiri programaren bidez lanean jarraitu, komunitatea indartzeko helburuz.
- Morlansen ekipamendu dotazionalak kokatu.
- Isabel II, Felipe IV eta Gregorio Ordoñez kaleak oinezkoentzat egokitu.
- Antxo Jakituna ibilbidean lorategiak kendu.
- Easoko trenbide- gunea berrereskuratu.
- Easo plazan, Amara Zaharra eta Amara Berri arteko lotura hobetu.
- Gobernu Zibileko eraikina ekipamendu-instalazio bihurtu.
- Gure Egunsentia Zahar etxeko jardueretarako gelak egin Gobernu zibileko eraikinean.
- Ferrerias ikastetxean Musika eta Dantza Eskolako eskaintza zabaltu.
- Anoetako Kirol-hiriaren berrantolatu, Estadio txikia birmoldatu, Belodromoa berritu, Atano Frontoia eta Gasca kiroldegia berritu.

- Ernest Lluch Kultur etxearen, haurtxokoaren eta gaztelekuaren instalazio berriak abian jarri.
- Auzoko plaza bat estali.
- Amarako urbide nagusiak (Karlos I, J.M. Salaberria, Corsarios Vascos, Pescadores de Terranova, Irun plaza, Eustasio Amilibia, Madrid ibilbidea Pio XII. Plaza eta Bizkaia pasealekua) berritu.
- Ikasketa plaza konpondu.
- Haurreskola berria egin Loiolako Erriberetan.
- Trenen aldageltokia Erriberetan egin.
- Auzoko ekintzetara hurbildu Urumea ibaia, Kirol ekintzetara batez ere.
- Amara Berri-Morlans ikastolako patioa berriro antolatu berdintasun ikuspegia kontuan hartuz.
- Jose M^e Salaberria kaleko eta Sagrada Familia inguruko argiztapena hobetu.
- Urumea pasealekuan ping pong mahaia jarri.
- Hospitaleko saihezbidearen sar-bidean babes-hesiak jarri.
- Zorroagako pasealekuan zebra-bidea jarri, radarraren inguruan.






ANTIGUA

Lekukotasun historikoek auzo honetan kokatzen dituzte hiriko lehen giza-taldeak. Joan den mendeko 90eko hamarkadan aldaketa handia bizi izan zuen iraganeko jarduera industrialeko guneak; nabarmentzekoa da Euskal Herriko Unibertsitatearen campusaren parte handia dagoela auzo honetan.

Hauek dira EAJ-k auzoari eskaintzen dizkion proposamenak datorren legealdirako:

- Infernu eremua biziberritu eta etxe berriak eraiki.
- Illara eremuan etxebizitza berriak eraiki.
- Gazteentzako apartamentuak egin Añarbeko lur zoruan.
- Gizarte zerbitzu gune berria egin.
- La Sirena aterpetzeko lokalak berritu.
- Lugaritz Kultur etxean berritze lanak egin.
- Lugaritzen Gaztelekua eta Haurtxokoa jarri.
- Musika eta Dantza Eskola Txalupagillenean kokatu.
- Antigua /Mirakontxa/San Martin /Mirakruz bidegorria egin.
- Heriz pasealekuko igogailuko 4 zatiak egin.
- Haizearen Orraziaren birgaitze integrala.
- Haizearen Orrazia Gizateriaren Ondarea izendatzeko lanak aurrera eraman.
- Gantxegi Bidea konpondu eta eratu.
- Ondarreta hondartzako kabinak konpondu.
- Zumalakarregiren hiribidean hoditeria konpondu.
- Chillida pasealekua oinezkoen gune bihurtu.
- Sert Plazaren inguruko plazetako bat egokitu umeak josta daitezzen.
- Zubimusu parkeko lokalak auzokokideentzat erabilgarri bihurtu.
- Erregezainen kalean hobetze lanak egin.
- Ondarreta pasealekuko zebra-bidea eta argiztapena hobetu.




AÑORGA

Añorga auzo industrial bihurtu zen Cementos Rezola bertan kokatu zenean. Hain zuzen ere, enpresa hori eta N1 errepidea auzoaren erdian eraiki izana izan dira auzoko bizitza gehien baldintzatu duten ezaugarriak.

Hauek dira EAJ-k auzoari eskaintzen dizkion proposamenak datorren legealdirako:

- Musika eta Dantza Eskolako eskaintza zabaldu Amassorrain ikastolan (2019-2020 ikasturtea).
- Cementos Rezola Museoarekin elkarlan hitzarmena sinatu.
- Bulebarizazioaren 2. Fasea egin.
- Zahar etxea kokatzeko tokia aztertu eta zahar etxe berria egiteko lanean hasi.
- Kirol Entrenamenduak Euskaraz Sustatzeko (KEES) metodologia bultzatzen jarraitu bertako Kultur eta Kirol Elkartean, eta, oro har, euskararen aldeko gainerako ekimenetan ere elkarlanean jardun.
- Chillida Lekura iristeko oinezko eta bizikletentzako aukera bideratu Foru Aldundiarekin batera (Añorga Errekalde).
- Añorga txikin, bidegorri eta Antiguo-Añorgako oinezko bide eta haurren parkeko bidezidorra hobetu.
- Añorga txikiko haurren parke ondoko gunea hobetu.
- Koloreetako zabor ontziak jarri.
- Zuhaitzen azterketa eta kimaketa orokorra egin
- Ping pong mahaiak jarri.



BIDEBIETA

Auzo hau garai bateko Altzako udal barrutiko lurraldean kokaturik dago, eta muga egiten du Pasaiarekin. Portu inguruko zonalde gehienak bezala, eraldaketa handia izan zuen industrializazioaren garaian. Orduan ikaragarri hazi zen eta baserriz osaturiko gunea izatetik industriad eta dorrez beteriko hiri-auzoa izatera pasatu zen.

Azken hamarkadan bizitegi gune berriek (Kontadores-ek eta Gomistegik) ordeztu dituzte zaharkitutako industriaguneak. Etorkizunari begira, Donostiako gure beste badian, Pasaiako Badian, abian dira birgaitze eta biziberritze ekimen eta lanak eragin handia izaten ari dira inguru honetan.

Hauek dira EAJ-k auzoari eskaintzen dizkion proposamenak datorren legealdirako:

- Donostiako Udalak bultzatutako Ekialdeko Barrutiko Udal Batzordeak sendotzen eta indartzen jarraituko dugu, herritarren partaidetzak, auzoaren garapen eta etorkizunean duen garrantziaz jabeturik.
- Bidebietako kiroldegiko instalazioa hobetu.
- Gomistegi parkea osatu, Pasaiarekin batera.
- Bidebieta eta Gomistegi arteko bidegorria eraiki.
- Kultura ekipamenduren bat jartzea aztertuko dugu Kontadores eraikinean.
- Zumardia pasealekuko Aterpe zahar etxean irisgarritasun arazoak konpondu.
- Guarda Plata zahar etxea hobetu.
- Emakumeen irudi historikoa errekonstruatu. Kontadores Fabrikako emakumeena.



EGIA

Trena iristek eragin handia izan zuen eta auzoa gune guztiz maldatsuan eraiki zen. Bere zabalgunean kokatu ziren Atotxako futbol-zelaia eta Tabako-lantegia, zeinaren ondoan hasten den Cristina-enea parke enblematikoa. Auzoa maldetan hazi da.

Bertan hiri osorako azpiegiturak eta sistemak (garraio sistema, Tabakalera, Cristina -enea, Polloe hilerriak ...) kokatzen dira. Eta hauexek eta auzo langilearen izaerak, hain zuzen ere, ematen diote nortasun hori. Ezaugarri hauek markatzen jarraitzen dute auzoaren izaera eta etorkizuna. Gainera, Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroaren garapenak edo/ta Abiadura Handiko Trena (AHT) Donostiara iristek ere eragina izango dute auzoaren garapenean.



Egia nortasun handiko auzoa da eta euskararekin konpromiso irmoa du. Euskaraz Bizi ekimena antolatu zuen lehen auzoa izan zen.

Hau dena kontuan hartuz, eta komunitatea indartzea eta ardaztea helburu, Donostiako Udalak bultzatzen duen Donostia Lagunkoia hiri planetik, Egian Lkaleak egitasmoa lantzen ari da. Auzoko euskara batzordea sustatzen ere jarraitzen du Udalak eta, oro har, Egian euskaraz ere bizi ahal izateko ekintzak bultzatzen.

Hauek dira EAJ-k auzoari eskaintzen dizkion proposamenak datorren legealdirako:

- Lkaleak egitasmoa sendotu eta garatu.
- Auzokideekin entzute aktibo proiektua landu.
- GI20 rako sarrera berria egin Marrutxipin, auzora errazago iristeko.
- Aldakoenean birgaitze lanak eta etxebizitza berriak egin.
- Mundaiz eremuan birgaitze lanak eta etxebizitza berriak egin, irigarritasuna bermatuz.
- Iztuetako biaduktoa kendu eta eremua berrantolatu.
- Luis Martin Santos plazako estalkia hobetu.
- Saneamendu sistema berritzen jarraitu.

- Matigoxotegiko zelaian berritze lanak egin.
- Polloe hilerrian Errautsen lorategia eratu eta hileta zibilak egiteko gunea egokitu.
- AHT geltokiaren eraikuntza eta urbanizazioa burutu – Tabakalera plaza eraikiz.
- Kristina Enea parkeko biodibertsitatea handitu.
- Osasun zentroaren ondoan haurren parkea jarri.
- Ametzagaina goikaldean, ikastola parean, semáforo botoiduna jarri.
- Txakurrentzako parke bat egiteko aukera aztertu.
- Zigarrogile emakumeen eskultura jarri zigarrogile emakumeen plazan.



ERDIALDEA ETA AMARA ZAHARRA



1862. urtean, hiria suntsitu zuen sutea izan eta urte batzuk geroago, harresiak eraistea erabaki zen, eta horren ondoren hiriaren lehen zabalgunea eraiki zen, Antonio Cortazarrek proiektatu zuenaren arabera. Horrela sortu zen gaur egun ezagutzen dugun Erdialdea. Urte batzuk geroago, 1870tik aurrera, Cortazar zabalgunek bere mugak jo zituenean, Urumea ibaiaren eremua irabaziz joan zen, eta gaur egun Amara Zaharra izenez ezagutzen dugun zabalgunea sortu.

Amara Zaharrean aldaketa garrantzitsuak gertatzen ari dira. Batetik, San Bartolome proiektuaren exekuzioaren ondorioz, auzoa erabat biziberritzen ari da. Bestetik, Topoaren pasabideak ekarriko dituen eraldaketek ere eragingo dute. Easoko trenbide-gunea libre geratzeak aukera handiak ematen dizkio auzoari, eta baita hiri osoari ere.

Hauek dira EAJ-k auzoari eskaintzen dizkion proposamenak datorren legealdirako:

- Eason berreskuratuko den trenbide gunean:
 - Easo plaza, Amara Zaharra eta Amara Berri arteko lotura hobetu.
 - Hirian gune honetan zentralitate berri bat sortu.
 - Ekipamendu publiko esanguratsu bat egin.
 - Etxebizitza berriak eraiki.
- San Bartolomeko bainu-etxea berritu.
 - Udal info gune berria kokatu.
 - Udal ekipamendu berriak kokatu.
 - Kontxako bidegorria berritu.
- Antigua /Mirakontxa/San Martin /Mirakruz bidegorria burutu.
- Amara Zaharrean ekipamendu dotazionalak egin.
- Arrasate 41 kaleko pisu tutelatuak abian jarri.
- Jatorra zahar etxea berritu.
- Garibai kalea oinezkoen gune bihurtu.

- Artzai Onaren kanpandorrea bisitagarri egin.
- Larramendi kalea oinezkoen gune bihurtu.
- Bellas Artes eraikinaren auzia bideratu.
- Erdialde zahar elkarteak eraberritu.
- Amara Berriko eskolaren patioa berritu.



GROS, ULIA ETA ATEGORRIETA

Gros urbanistikoki ia-ia amaiturik dagoen auzoa da, XIX. mendean hasitako zabalguneen eta joan den mendean egindako beste hiri antolakuntzen ondorio. Gros hiriko auzo zentrala da, bai ikuspuntu historikotik, bai ikuspuntu sozial eta ekonomikotik ere. Hirian biztanleen dentsitaterik handiena duen auzoa da eta hemen kokaturik daude Kursaalaren gisako ekipamenduak edo Zurriola gune naturala.


Grosen, Saguesen hain zuzen ere, hiria eta naturaren arteko muga topatzen dugu, Itsasertzaren ibilbidea egiteko aukera aparta ematen digu Sagueseko eremuak.

Grosetik eta Ategorrietatik abiatzen gara Ulia aldera, Donostiako berdegunerik handiena da hau. Mendi honek Donostia eta Pasaia lotzen ditu, kostaldeko labar ikusgarrien ertzean zehar. Mendi hau ere auzoaren erreferentzia dugu.

Hauek dira EAJ-k auzoari eskaintzen dizkion proposamenak datorren legealdirako:

- Sagues eremuaren berrikuntza garapen integrala bultzatzeko, nazioarteko lehiaketa antolatu, hiria, mendia eta itsasoaren lotura lortu, begiratokia eta hiriko erabilpenerako gunea sortu.
- Marrutxipiko GI20rako sarrera-irteera berria egin, auzoko mugikortasuna hobetzeko.
- Haurreskola berria egin.
- Groseko zahar-etxea lekuz aldatu, zahar etxe berri bat egin.
- Manteon alojamendu dotazionalak egin.
- Antigua/Mirakontxa/San Martin/Mirakruz bidegorria burutu.
- Kataluniako Plazan gune estalia sortu.
- Uliako mintegiak: Aranzadiren egoitza bertan kokatu, mintegiak birgaituz eta dagokien balioa emanez.
- Uliako tren bidea ezagutarazi.
- Uliako bideen seinaleztapenak jarri.

- Kursaal-Boulevard bidegorria lekuz aldatu.
- Auzoko argiteria hobetu.
- Txofreko aparkalekuan konpontze lanak egin.
- Txofreko plaza eraberritu.
- Ping pong mahaiak jarri.




IBAETA

Donostiako auzorik zaharrenetarikoa dugu Ibaeta. Azken urteotan, aldaketa sakonak jasan izan ditu: Errotaburu eta Berioko urbanizazioak, Kanpusa eta Unibertsitateko Fakultateen garapena, Zuatzuko enpresa-parkea... Datozen urteotan ere aldaketa ugari eragingo diote auzoari.

Hauek dira EAJ-k auzoari eskaintzen dizkion proposamenak datorren legealdirako:

- Topoaren saihesbidearen lanen ondorioz geltokia egin.
- Infernuko zonaldea birgaitu eta urbanizazio berriak burutu.
- Illarran etxe berriak egin.
- Hoditeria berritu.
- Ibaetako ubidea leheneratu.
- Berioko espaloiak hobetu .



IGELDO

Igeldoko Auzo-udala (Toki entitate txikia) bultzatuko dugu, Igeldoko bizilagun eta Udaleko gainerantzeko Udal taldeekin elkarrizketa eta akordioan oinarriturik.

EAJ-k honakoak proposatzen ditu:

- Saihesbidean espaloiak egin.
- Eskola zaharrear erabilera definitzeko prozesua egin auzokideekin batera.
- Igeldoko lur publikoak kudeatzeko plana bideratu (erretako guneko eremua definitu eta bertakoei animaliak zabaltzeko eskaintza egin, bide batez lur eta eremu hauek txukun edukitzeko).
- Itxasurreko fatxada txukundu eta margotu. Kultur etxea.




INTXAURRONDO

Altzako udal-barruti zaharraren zatia izan zen Intxaurreondo. Trenbideak eta Donostiako saihesbideak hiru zonalde handitan zatitzen dute auzoa. 15.000 donostiar baino gehiago bizi dira gaur egun Intxaurreondon. Azken urte hauetan etxebizitza ugari eraiki eta zonalde berde ugari egokitu dira. Auzo gaztea eta giza bizi garrantzitsua duena da Intxaurreondo.

Hauek dira EAJ-k auzoari eskaintzen dizkion proposamenak datorren legealdirako:

- Donostiako Udalak bultzatutako Ekialdeko Barrutiko Udal Batzordea sendotzen eta indartzen jarraitu.
- Auzoko euskara batzordeak eta Donostiako Udalak, elkarlanean, euskaraz bizitzea sustatzeko proposatzen dituzten egitasmoak bultzatzen jarraitu.
- GI20ko sarrera berria egin, Marrutxipiko lotunea, auzoan trafiko fluxua eta mugikortasuna hobetuko duena.
- Martx Up! Programaren baitan Sorleku parkea egin, Dbus ondoko lur zatia haurrentzako erabilgarri izateko.
- Intxaurreondo hegoko zahar etxe berria egin.
- Gizarte zerbitzu zentroa egin.
- Intxaurreondoko ikastolako jolastokia estali.
- Zarategi pasealekuan petankan aritzeko gunea estali.
- Suhiltzaile en eraikineko eremuan urak jasotzeko sarea berritu.
- Pilar klinikan etxebizitza berriak egin.
- Arrobitxulo parkean txakurrentzako zonaldea egokitu.
- Osasun Zentroa hobetzeko eta handitzeko Osakidetzarekin elkarlana bultzatu.
- Emakume irudi historikoa berreskuratu.
- Txaparrene parkea ixteko hesia.
- Sagasti Eder edo Intxaurreondoko gizarte etxean ping pong mahaiak jarri.



URUMEA: LOIOLA, TXOMIN ENEA, MARTUTENE



Urumea ibaiak Ezkurran (Nafarroan) du sorlekua. Donostiara Martutenetik sartzen da, eta Txominenea eta Loiolatik jarraitzen du bere ibilbidea. Auzo hauek ibaiaren ibarrarekin lotura handia izan dute betidanik. XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran baserriak ziren Urumea Ibaiaren zutabe. 1906. urtean eraiki ziren jauregitxoak eta Lorategi Hiria proiektua izan ziren auzoen jatorria. 1926. urtean Kuartelak iritsi ziren, bi auzoen artean hainbat fabrika eta industria txiki ezarri ziren eta 1948. urtean Kartzela ireki zen.

Urumearen behealdearen kezka nagusia uholdeak izan dira hasieratik. Urumea ibaiaren bideratze lanen lehenengo fasea burutu da. Txomin Enea izan da uholdeak gehien jasan behar izan dituen gunetako bat. Egun erabateko aldaketan murgilduta dago, kota altuago batean egongo den auzo berri bat egiteko.

Hauek dira EAJ-k auzoari eskaintzen dizkion proposamenak datorren legealdirako:

- Urumea eremu honen garapena sustatu. Horretarako egun, Kuartelak eta Kartzela lekuz aldatzea dira eskuartean ditugun bi gai nagusiak, hiria eraikitzen jarraitu ahal izateko. Alderdi gisa, horiek Lekuz aldatzea eta Hirirako berreskuratzea defendatuko eta landuko dugu erakunde guztietan.
- Loiolako Lorategi Hiria birgaitu.
- Txominenea II burutu.
- Antzieta, Sarrueta eta Trinkete eremuak urbanizatu.
- Antondegiko eremua berraztertu eta bertan Surf poloa kokatu.
- Urumea ibaiaren bideratze lanen II. fasea egin.

- Egin berri den Ibai parkea baloreari jarri.
- Mahaiak eta erretegiak jarri Martutenen, Goizueta kale inguruan.
- Zubien berrikuntzak egiten jarraitu, orain: Astiñene eta Espartxo.
- Txominenean haurreskola jarri.
- Txominenean Gizarte Zerbitzu gunerik berri bat jartzea aztertu.
- Kultura ekipamendu berria definitu eta abian jarri.
- Martuteneko futbol zelaia berri.
- Loiolako ibilbidearen bulegarizazioa.
- 27 Poligonoaren bukaera Urumeako saihesbideko sarrera-irteera zuzena egin.
- Martuteneko biribilguneak bi altuera izateko proiektua bultzatu.
- Renfe-ko Martutene eta Loiolako geralekuak berritzea eta maila bereko pasabideak kendu.
- ADIF-ekin elkarlana bultzatu Renferen geltokia Apostolutza kale ingurutik Martuteneko El Pilar Pasarelarantz eramateko.
- Patxillardegin markesina jarri.
- Loiolan komun publikoa jarri.
- Okendotegi bidean txalupentzako portua jarri.



ZUBIETA

Zubietak bi udal barrutitan du lurraldea, Donostian eta Usurbilen.

EAJ-k honako proposamenak aurkezten ditu:

- Zubietako Herri Batzarra erakundearekin hitzarmena garatu eta sendotu, laguntza teknikoa eskainiz eta funtzionamendu hobeari lagunduz.
- Eskusaitzeta poligonoaren -Gipuzkoako poligono industrialik handiena da- II. fasea burutu. Energia berriztagarri eta eraginkortasunaren alorrak lantzen dituzten enpresak erakartzeko lan espezifikoak egin.
- Mubil elektromugikortasun gunea (2023) profitatuz alor honetako industria berrizaleak poligono honetara erakarri.
- Hockey zelaia egin Hipodromoaren ondoan.
- Zubietako eta Usurbilen arteko oinezkoentzako ibilbidea egin Usurbilgo Udalarekin elkarlanean.
- Auzo ekipamendua lortzeko aurrerapausoak eman.
- Frontoiko markadore elektronikoa konpondu.

